

## «GOIZ - ARGÍ»

Baserritarren aldizkaria. Urtearekin batera asi da berriro. Lenago ARANZA-ZU illerokoaren geigarri bat bezela agertu oi zan. "GOIZ-ARGI" illero agertzen da. Idazkaiak ugari ditu, nai ainbat ez izan arren. Ortarako baimenik ezpaitago oraindik.

Mundu guziko berriak. Sail ontan une-aldiko gertaera nagusienak aitatzen ditu. Lenengo orrialde aundian agertzen dira euskera errex, samur eta gozoan.

Aita Santuaren erakutsiak. Elizak beti euki izan du ardura aundia nekazariekin. Pio XII Aita Santu zanak mañabat itzaldi zuzendu zizkien alderdi guzietako nekazari. Argia ugari zabaldu zuan baserritarren onerako. Berak aitortu zuan baserriak eman dizkiola eta ematen ari dala Elizari bere gizonik aundienak, naiz santuen artean naiz ja-

Erriz-erri, Sail ontan gure erri txiki te aundietako gertakizunik nagusienak ematen dira soil eta labur.

Aldizkari osoa ezta euskeraz ateratzen. Oraindik ezta lortu baimenik dana gure izkuntzan argitaratzeko. Lautatik bat gutxienez erderaz dator.

Baserritar geienak ondo ikusi dute "GOIZ-ARGI". Askok erosten dute ta gero ta geiago zabaltzen dijoa gure errietan.

Baten-batek esan izango du: "Baiña, ciek guri zer erakutsi bear digute baserriko gauzetan? Obe lukete sciatuko balarira gauzak merke jartzen, esne-bei onak nola mantendu bear diran guri erakusten jardun baiña. Guk geok ere ba-dakigu nola mantendu bear danazienda, gaia euki ezkeru."

Baserritarrak batu bearra daukate nekazaritza indartzeko. Baiña batasunera-

AUSPOA.—Oker bat zuzentzen gatoz. Azkenengo YAKINtzon Loyola'ko zuzenbidea ematen genizuen AUSPOA artu nai zenuenoi. Barkatu, gaizki egin genuen eta ortik naspilla sortu da. AUSPOA'ra suskribitu nai zerenok go-goan artu zuzenbide au: Auspoa, - Conde de Ibar, 4 - Tolosa - Guip. Ona zuzendu zuen eskabidea. Eta eskatu al dezuten guziok.

kintsuen artean. "GOIZ-ARGI" k beti ematen du lenengo planan Aita Santuaren dotriña nekazaritzari buruz.

Urteko Eliz-aroetako berri ere ematen du. Garizuma, Aste Santua, Pazko-aldia. Garai auetan zer sinistu ta egin bear dugun erakusten digu baserri-aldizkari onek.

Bertso-berriak. Gure bertsolarien saioaldi batzuk agertu dira. Bertsolariak indar aundia dute erriaren aurrean. Ezta-go berak bezelakorik gure erria esnatu ta pizkortzeko. "GOIZ-ARGI" k bearrakoa du bertsolarien txoko au.

Gure Jokuak. Sail ontan agertzen dira gure aizkolarien txapelketak, arrijaso-tzailleen desapiyuak, idi-demetako markak, pelotarien gora-beerak, korrikalarien saioak eta estropalarien norgeiagokak.

ko bideak itxita daukate ainbeste etsaien aurrean.

"GOIZ-ARGI" k lagundu nai dio arazo ontan. Baiña baserritarrak ba-daki ondo lanik egin gabe eztagola baserriari eusterik. Orregatik da nekazaria, nekezko eginbearra dalako baserritarrena.

\* \* \*

### Oteitza Montevideo'ra

Orain iru illabete aurreratu genuena ikus YAKIN'en 11'gn zenbakian 45 or been), azkenean irabazi du Oteitza'k; Montevideo'n dugu euskaldun jator au. 73 aurre-lanetatik, bereak eraman du arkitektura norgeiagoka. Ta, ba-dira il batzuk bertara joan zitzaiguna.

Zorionak, Gorra, eta beti aurrera.